



Maiatzak 17, "LGTBI fobiaren aurkako Nazioarteko Eguna"

Hezkuntza-komunitate osoari:

Datorren maiatzaren 17a "LGTBI fobiaren aurkako Nazioarteko Eguna"² data aproposa da ikastetxe guztietan sexu-aniztasunari buruz hausnartzeko eta gure hezkuntza-komunitatean prebentzio-neurriak garatu behar direla planteatzeko, pertsona bakoitzak bere sexu- eta genero-identitatea errespetatzeko duen askatasunaren aurka egiten duen edozein iritzi, jarrera edo jokabide lesbofobiko, homofobiko, transfobiko edo bifobikoren aurrean.


Hezkuntza Sailak bat egin nahi du data horrekin, eta ahaleginak batu nahi ditugu guztion artean LGTBI fobia aintzat hartuko ez duen gizarte bat lortzeko bidean aurrera egin dezagun, non emakumeek eta gizonek aukera izango duten gizartean parte hartzeko modua eta sexu-orientazioagatik diskriminatu gabe bizitzeko modua aukeratzeko.

Horregatik guztiagatik, ikastetxeei eskatzen dizuegu maiatzaren 17a balia dezazuela aurrerapenak aitortzeko eta lanean jarraitzeko ikasturte osoan zehar berdintasunezko ikastetxe bat eraikitzeko, hezkidetzaren 8 zutabeak formulatzen dituen II. Hezkidetzaren Planaren jarraibideei jarraituz. Material horiek eta beste batzuk irakasleen eskura daude [Hezkidetzagunean](#).

Era berean, nabarmendu eta gogorarazi nahi dizuegu ikastetxeen eskura dagoela ere [Berdindu Eskolak](#) sexu- eta genero-aniztasunarekin lotutako gaietarako Eusko Jaurlaritzaren informazio- eta arretaz bitzua.

Hezkuntza-komunitateei eskatzen diegu maiatzaren 17a egunero egon dadila ikastetxeetan, II. Hezkidetzaren Planaren eta zonako Berritzeguneetako mintegietan proposatzen den bezala.

Agur bero bat.


Jokin Bildarratz Sorron
HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Hezkuntzako sailburua/Consejero de Educación

² Homofobiaren eta Transfobiaren aurkako Nazioarteko Eguna maiatzaren 17an ospatzen da, 1990ean Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) Batzar Nagusiak homosexualitatea eta transexualitatea gaixotasun mentalen zerrendatik kendu zituenean, aurreiritzi historikoak zientziari eta arrazoiari gailendu zitzaizkionean.